

Herritarrak

2014ko uztaila

INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2011-2015

12.alea



www.berastegi.com

HIRIGINTZA

1. Udaletxeko bigarren solairua egiteko parte-hartze prozesua: Parte-hartze prozesuan diseinatutako proiektua zehazten eta osatzen ari dira lteren-eko ordezkariak eta herriko arkitektoa eta aparejadorea. Proiektua prest dagoenean jendaurrean aurkeztuko da. Bi aurrekontu egin dira: batean, distribuzio gehiena kristalezkoa egitea proposatzen da (300.000 euro); eta, bestean, pladurrezkoa (227.000 euro).

2. Ategiko eremua: Aurrera doa. Foru Aldundiak jakinarazi digu proiektua ontzat emango duela. Udalaren eskuetan dago orain plana. Lursailaren jabeak PAU delakoa (Plan de Actuación Urbanizadora edo Jarduera Plan Urbanizatzailea) aurkeztu du dagoeneko, eta bertan epe batzuk adierazita daude proiektuarekin aurrera egiteko. Uztailaren 19an egin zen bilera udaletxean proiektuaren berri emateko arkitektoa eta herritar interesatuak bertan zirela.



3. Irisgarritasun plana: Herriko arkitektoak eta aparejadoreak diseinatu dute dagoeneko herritarrek herrigunean batera eta bestera mugitzeko eta noranahi iristeko gaur egunean dauzkaten oztopo arkitektonikoak jasotzen dituen plana. Ekainaren 4an aurkeztu zieten bi teknikariek plana udal taldeari eta langileei. Oztopo horiek lehentasunen arabera sailkatzea eta egin beharreko konponketa-lanak zehaztea izango da hurrengo pausoa. Eskolako haurrekin ere lanketa egin nahi izan da gai honen inguruan. Irailerako etxetik eskolara etortzeko bidean dituzten oztopoak identifikatzeko eskatu zaie. Udala saiatuko da oztopo horiei ere konponbidea bilatzen.

4. Herriko kale-izendegia eguneratzen: Martxoaren 6an eta apirilaren 10ean egindako batzorde irekien ondoren, ia zehaztuta dago Berastegiko kale-izendegi berriaren itxura. Herriguneko kale-izen gehienak erabakita daude, bi kale-izen bakarrik daude adostu gabe, eta herriguneko eta auzoetako eraikinek zer zenbaki izango dituzten ere zehaztua dago. Jendaurrean aurkeztuko da plano berria; eta, hartan oinarrituta, seinale berriak jarriko dira herrian zehar.

5. Plaza ixteko proposamena: Proposamen hori luzatu nahi die udalak herritarrei. Kotxeen etengabeko joan-etorriek plazan sortzen dituzten arriskuek kezka eragiten digute, eta aparkaleku izateari utzi eta oinezkoiei irekitako gune segurua eta bizia izatea nahi genuke. Gipuzkoako plaza gehienak halaxe jarrita daude gaur egun.



Horretarako, irailaren hasieran batzorde irekia egingo da, herritarren proposamenak eta ekarpenak jasotzeko; eta bertan plaza nola itxi, plazatik kanpo aparkalekuak non jarri, garajeak dituzten bizilagunei eta autobusari sarrera nola eman eta abar aztertuko da. Bestalde, plazako komertzioak ere ez dauzkagu ahaztuta. Tolosaldea Garatzen prest agertu da udala aholkatu eta laguntzeko, plaza ixterakoan komertzioek ahal den kalte gutxien jasan dezaten.

Batzordea egin eta gero, berriz, herriko arkitektoak eta aparejadoreak proiektu posibleak diseinatuko dituzte; eta, ondoren, parte-hartze prozesua egingo da herritarrekin zer nola egin erabakita uzteko.

HONDAKINEN KUDEAKETA

6. Urte erdi bilketa-sistema eraberritu zela: Hasteko, herritarrak zoriondu beharrean gaude, sistemaren ezarpena ez baitzen egingo herritarren aldeko jarrerarik eta eginahalik gabe. Sistema berria ezarrita, urte erdian %50 murriztu ahal izan du udalak zabor-bilketaren kostua; eta, horrela, bilketa-zerbitzuaren kostuak udalean sortzen duen defizita nabarmen murriztu ahal izatea aurreikusten da.

Aipatzekoa da eskualdeko hainbat udalek, Asteasuk, Leaburuk eta Lizartzak, besteak beste, Berastegin ezarri den bilketa-sistema hartu dutela eredu, beren udalerrian ezartzeko. Lanak ondo egiten ari garen seinale.

Pozteko moduko datuak lortu baditugu ere, lanean jarraitu beharra daukagu sistemak ahalik eta ondoen funtzionatzeko eta akatsak konpontzeko. Badauzkagu hainbat ohar herritarrei gogorarazteko:

- Herritar batzuek, nahiz eta etxean autokonpostagailua eduki, plazako auzokonpostagailua erabiltzen dute. Jakin beharrekoa da auzokonpostagailua etxean konposta egin ezin dutenentzat ezarri zuela udalak. Autokonpostagailua erabiltzeak eraginkorrago, jasangarriago eta merkeago egiten du sistema.
- Eliz atarian traste zaharrak biltzeko dagoen moduloa ez da edozein hondakin mota botatzeko. Altzariak, koltxoak eta etxetresna elektrikoak biltzeko da; eta bilketa, orain artean bezala, hileko lehen eta hirugarren ostegunetan soilik egiten da. Aurrez 943 67 62 16 telefonora deitu behar da, eta eraman beharrekoa bilketa-egunaren bezpera iluntzean utzi behar da bertan.
- Animalia hilen hondakinak uzteko bigarren zuloa ireki dute herri-langileek Artalekun, aurrenekoa bete ondoren. Erabiltzen den seinale, dudarik gabe. Hezurak, tripak, gantzak, lumak eta abar bota behar izanez gero, beraz, jo Artalekura.

ESKUALDEKO BERRIAK

7. Tolosaldeko Komunikazio Taldearen kanpaina: Ekainaren 3tik 20ra bitartean etxe eta dohainik banatu dira Ataria egunkaria eta astekaria. Kanpainak Atariako harpidedun berriak bilatzea izan du helburu, eta udalak ere bat egin du kanpainarekin, gertuko informazioa eskura izateak eta euskaraz jasotzeak duen garrantziaz jabetuta. Ekainaren 13an, kanpaina berarekin lotuta, Txolarre irratiak Berastegitik bertatik eskaini zuen irratsaioa. Dagoeneko entzun liteke Txolarre edo Ataria irratia gure herrian, 107,6 fm frekuentzian. 28 kanala ere ikusten da gure herriko etxe gehienetan.

8. Tolosaldea Garatzen-en funts estrategikoa: eskualdeko udalerriek Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren bidez jasotakoaren %10 Tolosaldea Garatzen-en funts estrategikora bidaliko da, eskualde mailako proiektuak finantziatu ahal izateko. Berastegiko udalaren kasuan, 4.000 euro ingurukoa da kopurua.

MOTZEAN

9. Espainiako bandera ezartzeko agindua: Batzorde irekiak zehaztutako pausoak emanez, banatu dira ikurrinak etxez etxe eta jarri da ikurrin handi bat udaletxe ondoko parkean. Hantxe egin zitzaion omenaldi xumea ikurrinari ekainaren 23an, bertso eta dantza artean, gure bandera zein den argi utziz. Bestalde, batzar-gelako paretana nagusian jarria dago dagoeneko Euskal Herriko 7 lurraldeetako armarrria.



Carlos Urquijo Espainiako gobernu-ordezkarriak beste bi eraso egin dizkio Berastegiko udalari. Bata, udalak balkoian duen banderolari lotua; kontentzioso administratiboa sartu dio udalari, ez dela legala esanez.

Gu, ordea, legala delakoan gaude, urtarrilaren 11ko manifestazioa lema berarekin egin baitzen, eta ekitaldi hura legezko ikusi baitzuen gobernu-ordezkaritzak. Eta bigarren erasoak Berastegi Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, UEMAn sartu izanarekin du zerikusia. Udalak hilabeteko epean atzera egiten ez badu, beste kontentzioso bat jasotzeko mehatxua egin digu Urquijok. Guk argi dugu euskararen normalizazioan eta aurrerapausoetan lanean aritzea ezin dela inola ere delitu izan, eta gure erabakiari irmo eusteko asmotan gaude.

10. Buzoi berriak ezarrita: Auzoetako buzoi berriak jarrita daude dagoeneko, eta giltza gehienak ere banatuta daude. Lauko bi modulo jartzea falta da. Oraindik giltza hartu ez dutenek udaletxera jo behar dute bila.

11. Udaletxeko altzari zaharrak: Pimpiaren kontrako tratamendua eman zaie, eta ekarri dituzte berriro ere udaletxera. Zein leku eman erabaki behar da orain.

12. Barandak aldatzeko eskaria: Udalaren foroan herritar batek eskatutakoari erantzunez, eta zeuden bezala zeukaten arriskuaz jabetuta, Zelai tabernaren aurreko eta Urepele elkartearen atariko barandak egokitzea erabaki du udalak. Lehengo barandei beste modulo bat erantsiko zaie.

13. Hilerriko ordenantzak: Hezurtokia egitea erabaki da; lehen pentsatu bezala, hilerri berriaren iparraldeko hormaren kontra. Hautsak gordetzeko nitxo txikiak non eta nola jarri aztertzen ari da udala.

14. Txakur-kaken arazoa: Herritar asko kexatu dira espaloietan eta oinezkoentzat egokitutako eremuetan txakur kaka ugari agertzen direlako. Neurriren bat hartzeko asmoa du udalak.



GIZARTE ZERBITZUAK

15. Etxebizitza babestuak: Gaztainondoko etxebizitza babestuetan plaza bat libratu da azken hilabeteen. 5 lagunentzako tokia dago berez: 4 plaza beteta dauzkagu momentuan, eta bakarra libre. Plaza hori hartu nahi lukeenak emakumezkoa izan behar du, eta gela konpartitu.

KULTURA

16. Berastegi UEMAn: Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide da dagoeneko gure herria. Ekainaren 14an Tolosan egin zen Udalerrri Euskaldunen Eguneko batzarrean sartu zen ofizialki. Berastegi herri euskalduna eta arnagune sendoa dela diote datuek, azken urteetan atzerakada antzeman bada ere. Xabier Bengoetxeak egindako ikerketa-lanak hala erakutsi du. Izaera hori indartzen eta lantzen jarraitzeko asmo irmoa du udalak.

17. Euskara-ikastaroen finantziarioa: UEMArekin elkarlanean, euskaltegian matrikula egiteko kanpaina berezia egingo da irailean herrian. Ikasleak inguruko euskaltegiara bideratzeaz edo, herrian bertan taldea sortzen bada, irakaslea herrira ekartzeaz arduratuko da UEMA. Bestalde, udalak herritarrek egiten dituzten euskara-ikastaroak diruz laguntzen jarraituko du. Kostuaren %80 lortu ahal izango dute ikasleek, baldintzak egoki betez gero: herrian erroldatuta egonda, matrikula-ziurtagiria aurkeztuta, ikasturte amaieran %85eko asistentzia beteta eta abar. Informazio gehiago nahi duenak udal bulegoetan eskuratu ahal izango du.

18. Loatzo musika-eskola herrira ekartzeko proposamena: Guraso Elkarteak egin du eskaera. Udalak, ordea, ezezkoa eman dio eskaerari, herrian musika-eskola finantziatzeak udal aurrekonturako kostu altuegia dakarrela argudiatuta. Horren aurrean, eta herrian solfeoa eta hainbat musika-tresna ikasteko aukera badagoela jakinik, udalak herrian eskaintzen ez diren musika-ikastaroetara doazen herritarren bidaia-gastuak, kilometrajea, ordaintzeko erabakia hartu du.

19. Salontzoak 2014: Herri-afariko txartelak salgai daude dagoeneko Urepele elkartearen, Basurde elkartearen, Zelai tabernan eta udal bulegoetan. Bi menu daude aukeran: umeena, 10 eurokoa; eta, helduena, 20 eurokoa. Adin mugarik ez da izango bata edo bestea aukeratzeko, baina umeen menua aukeratzen dutenek umeentzako prestatutako mahaietan eseri beharko dute. Menu zeliakoa edo bejetarianoa eskatzea ere badago.

Txartelak erosteko azken eguna uztailaren 31 izango da, eta aurten abuztuaren 1etik 5era bitartean mahaiak taldeka erreserbatzeko aukera izango da. Horretarako, udal bulegoetara jo edo kultura@berastegi.com helbidera idatzi beharko da. Ondo zehaztu beharko dira taldearen izena, lagun kopurua eta taldekideen izen-abizenak.

Afaltzeko orduan umeak ondoan nahi dituzten gurasoek jakinarazi diezaiotela udalari hala nahi dutela, mahaiaren erreserba egiteko garaian. Ume horiek, nahiz eta umeen menua izan, gurasoen ondoan afaldu ahal izango dute.